



<b>Deskripzioa:</b>	<p>Agiri honek esaten digu zer pertsona dauden erroldatuta Eibarko udalerriko helbide batean. Elkarbizitza-agiriak inskripzio-agiri izena ere badu. Elkarbizitza-agirian datu hauek topatuko dituzu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkarbizitza-agiria eskatu duen pertsonaren datu pertsonalak.</li> <li>• Bizilekuaren datuak eta bertan bizi den pertsona-kopurua.</li> </ul> <p>Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.1 artikuluekin bat, hirugarren pertsonen datuak zabaldu aurretik, adin nagusiko interesdunen baimena eduki beharko du Udalak.</p>
<b>Hartzailea:</b>	Eibarren erroldatuta egon eta elkarbizitza-agiria eskuratu behar duen edonor.
<b>Eskaera epea:</b>	Urte osoan zabalik.
<b>Beharrezko dokumentuak:</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Biztanleen erroldako tramiteak egiteko baimena, behar bezala beteta eta sinatuta.</li> <li>2. Biztanleen erroldako tramitea egiteko baimendutako pertsonaren NAN, AIZ, pasaporte edo horien baliokide den agiria.</li> <li>3. Baimena eman duten adin nagusiko pertsona guztien NAN, AIZ, pasaportearen edo horien baliokide den agiri baten fotokopia.</li> </ol>
<b>Tramitazio kanalak:</b>	<p> Presentziala: PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).</p> <p> Elektronikoa: <a href="http://www.eibar.eus">www.eibar.eus</a></p>
<b>Tasak:</b>	Doan.
<b>Sail arduraduna:</b>	Idazkaritza (Estatistika).
<b>Ebazpen organoa:</b>	Ez dagokio.
<b>Tramitazio epea:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>PEGORAn egindako eskaerak</b>, eskatu eta berehala.</li> <li>• <b>Elektronikoki egindako eskaerak</b>, egun 1. Elkarbizitza-agiria posta arrunt bidez bidaliko dizugu, erroldako helbide edo bizilekura.</li> </ul>
<b>Isiltasun-izaera:</b>	Ez dagokio.
<b>Ebazpenaren kontrako errekurtsoak:</b>	Ez dagokio
<b>Hurrengo tramiteak (prozedura):</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>PEGORA</b>: errolda eta dokumentazioa egiaztatu, eta, hala badagokio, elkarbizitza-agiria inprimatu eta interesdunari eman. Elektronikoki egindako eskaeretan, agiria posta arrunt bidez bidaliko da erroldako helbidera.</li> </ol>
<b>Lege-araudia:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="#">Ebazpena, 2015eko martxoaren 16koa, Idazkariordetzarena, udal errolda kudeatzeko udalei emandako jarraibide teknikoei buruzko 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena —Estatistika Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena— argitaratzeko agindua ematen duena</a> (BOE, 71 zk., 2015-03-24).</li> <li>• <a href="#">Ebazpena, 2005eko azaroaren 17koa, Idazkariordetzarena, Estatistika Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoekin eta Tokiko Erakundeekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak udal errolda urtero berrikusteari buruz udalei emandako jarraibide teknikoei eta biztanleriaren zifra-ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruz emandako Ebazpena argitaratzeko agindua ematen duena</a> (BOE, 280 zk., 2005-11-23).</li> <li>• <a href="#">15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa</a> (BOE, 298 zk., 1999-12-14).</li> <li>• <a href="#">1690/1986 Errege Dekretua, Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena</a> (BOE, 194 zk., 1986-08-14).</li> <li>• <a href="#">7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena</a> (BOE, 80 zk., 1985-04-03).</li> </ul>